

Udal Gobernuko alderdien aldeko botoekin onartu du Plenoak 2005eko Aurrekontua

■ 25.047.741 eurotako aurrekontu konsolidatua dute Udalak eta bi Patronatuek ■ PSE-EE abstenitu egin zen eta PP-k kontra bozkatu zuten ■ Bildu Hernani plataforma aurrekontuen kontra agertu zen.

2005eko udal aurrekontu proiektua onartu zuen atzo Plenoak, Gobernu Taldea osatzen duten hiru alderdietako zinegotzien aldeko botoekin (EA, EAJ eta EB). PSE-EE abstenitu egin zen eta PPK kontra bozkatu zuen. BH lege kanporatutako plataformako kideak ere izan ziren Plenoan eta udal aurrekontuarekin ados ez zeudela azaldu zuten. Udalak berak 21.507.353 euroko aurrekontua du 2005erako. Kirol Patronatuak 1.434.351 eurokoa eta Ongintza Patronatuak 5.582.654 eurokoa.



PP eta PSE-EEko zinegotziak eta Gobernu taldeko zenbait zinegotzi atzoko plenoan.

“Ez da murrizgarria”

Joxan Rekondo Alkateak esan zuen 2005eko aurrekontua ez dela murrizgarria, gastuak % 5,64 igoko direlako. Gizarte eta etxebizitza arloan gastuak % 36,51 igoko direla nabarmendu zuen; euskera arloa % 8,58; hezkuntza, enplegua eta prestakuntza % 17,94; eta kulturaren % 10,02.

Aurten iaz baino inbertsio gutxiago izango dira, Gobernu Taldearen hitzetan eztabaidatzera dijoazen Arau

Subsidiarioak berritzeko prozesuak eraginda, baina, nabarmendu zuen “aurtengoa baino txikiagoa, baina, 2003-an baino % 20 haundiagoa dela inbertsioen atala”.

2005eko aurrekontuetan proiektu berriak badaudela ere azpimarratu zuen: “auzetako berrikuntza lanak, igerileku irekiak, ingurumenaren aldeko apustua, bide gorri eta oinezkoentzako bideak, Chillida-Lekurekin ha-

rremanak estutzeko egitasmoak, sagardoaren kultura bultzatzeko zenbait ekintza eta inbertsio, bertako euskera jasotzeko azterketa lanak...”.

Aurrekontuz kanpo

Horrez gain, Joxan Rekondok nabarmendu zuen aurrekontuaz aparte aurten ejekutatzea espero duten zenbait konpromiso ere badituela Gobernu Taldeak: “Sagastiyan egingo den haur eskola, 50-

60 haur izatetik 150 inguru hartzera iritsi litekeena edo etxebizitza arloan, arauak berritzearekin, 1.700 etxebizitza publiko baino gehiago egiteko bidea jarriko da Hernanin, egingo diren etxe guttien ia % 60”.

Bestalde, Udal Gobernu taldeak nabarmendu du aurrekontua urtea hasi aurretik onartu dela “aspaldiko partez” eta “gestioaldi zabalagoa” izango dela. □

Hilerria haunditzeko lehen fasea

Hilerria haunditzeko lehen fasearako 500.000 euroko aurrekontua biltzen du 2005eko aurrekontu proposamenak, inbertsio sailean. Lehen fase honetan iparraldera haundituko da hilerria eta 380 hilobi berri dituzte egitekoak. Hilobi hauek egiteko 22 panteoi eta 83 nitxo egingo lirarteke proiektuaren arabera.

Igerileku irekiak egiteko proiektua

2005erako onartutako aurrekontu proiektuak, Hernanin igerileku irekiak egiteko lehen fasea aurrakusten du inbertsioetan, 627.095 euroko aurrekontuarekin. Proiektua eta kokalekua zehaztu beharko dira urtarrean egitakoa duten proiektuan. Litekeena da obrak 2005eko udara aurretik hastea.

Sandiusterri aurea estaltzea

Ongintza Patronatuak egingo duen inbertsioetako bat Sandiusterriko sarrera estaltzea izango da, eguraldi txarreko egunetan erabili ahal izateko. 177.000 euro daude onartuta. Horrez gain, oinarriko zerbitzu sozialetan 232.600 euro inbertituko dira, gazteria, familia, kale heziketa eta abarrekiko programetan.

Gimnasioan ekipamendua berritu

Kirol Patronatuak egingo duen inbertsio nagusia gimnasioko ekipamendua berritzea izango da. 60.000 euroko aurrekontua onartu da horretarako. Gaur egun 400 metro karratuko gimnasioa dago kiroldegian eta etorkizunean 700 metro karratura haunditu nahi dute, zenbait momentutan bete egiten delako.

BILDU HERNANI

“Aurrekontu baztertzailak dira”

BH plataformak aurrekontuari aurrekeztutako osoko zuzenketa berretsi zuen eta esan zuten 3.661 hernaniarren botua kontuan hartu gabe erabaki direla aurrekontuak. BHren iritziz, aurrekontuak ez dira parte hartzaileak izan “ez baita bilatu herriko taldeekin hitz egitea”. Proiektu eta egitasmo jakinen gaineko beren desadostasunak azaltzeaz gain, Plenoa jartzeko ordua ere salatu zuen BHk: “Plenoa eguerdiko 12:00etan jarrita ezin da herritarren parte hartzea bilatu”. □

PSE-EE

“2004ko aurrekontuaren jarraipena da”

PSE-EE abstenitu egin zen “aurrekontuari alderdi txarrak eta onak ikusten dizkiogulako”. Bi patronatuetakoa aurrekontuekin ados daude, baina, osoko zuzenketa ziotenari eutsiz “Udaleko aurrekontua 2004koaren jarraipena da, eta hura ez da erreala”. Babestutako etxeak egiteko lurrak erostea ez dela aurrakusten eta alderdi sozial gutxiako aurrekontuak direla esan zuten. Salatu zuen euskera alorrean “herrikanpora lan egiten duten zenbait proiektu” dirua jasotzen dutela. □

PARTIDU POPULARRA

“Etxebizitza egiteko lurrik ez da erosiko”

PPk kontra bozkatu zuen “aurrekontuak gabezi haundiak dituelako”. Nabarmendu zuten babestutako etxebizitzak egiteko ez dela lurrik erosteko partidari ageri eta “konkrezio gutxi” partida asko ageri dela. Horrez gain, “instituzio ilegaltzatutako bultzatzeko ateak zabalik” uzten dituela aurrekontuak esan zuen eta “Nafarroa eta Frantziako Estatuaren konpetentzia diren” gaiekin sartzeko, Nafarroa oinez eta Herri Urrats-i ematea aurrakusitako bi diru laguntzari degokienez. □

Egin ezazu Olentzerorena, opani hauek dauzkagu zakuan

- LEKEITIO: **Emperatriz Zita**
2 gau, tratamenduarekin: 107 €
- CIUDAD DE HARO Hotela:
"Ardo asteburu pasa"
2 pertsonarentzat: 125,9 €
- KANTABRIA: 2 gau
"Palacio Guevara": 82,35 € (A/D+afaria)
"La Posada de la cuadra": 62,90 € (A/D+afaria)
"La casona de Luis": 61,15 € (M/P)
- ESKIATZERA:
Candanchu: egun 1, 38,00 €
Luz Ardiden: egun 1, 47,00 €
- TALON HOTEL: bancotel 50,00 €
eta kontsultarako beste aukera asko...

HERNANI BIDAIAK

hernanib@teleline.es
Urbietan, 6 - 20120 HERNANI

943 33 00 49 / 943 33 01 74

GasHernani

Gudarien enparantza 14 - Tfnoa: 943 33 09 28 - 20.120 HERNANI

GasHernani
Zure etxerako
energia naturala
GAS NATURALA

Eguberri jai zoriontsuak
opa dizkizuegu!



Jubilatu Etxeko txapelketetako sarituak astearteko ekitaldian, udal ordezkariekin batean.

Goiz Eguzki Jubilatu Etxeak udazkeneko txapelketetako sariak banatu ditu

GOIZ Eguzki Jubilatu Etxean asteartean banatu zituzten karta joko eta billar txapelketako sariak. Musean, Lucas Yuste-Florian Martin gelditu dira txapeldun, eta Benito Ruiz-Vitorio del Nozal, bigarren. Tute txapelketan, Claudio

Cao-Jose Lopez aurrena eta Ramon Ormaetxea-Jose Luis Renedo, bigarren. Eskoban, Cristina Valdes-Jose Luis Gonzalez txapeldun eta Paulino Garcia-Juanita Arrillaga bigarren. Punttun, Patxi Apezte-
txea-Inazio Azpiolea irabazle

eta M^a Dolores Anabitarte-Florian Martin, bigarren. Billarrean, Milagros Aldaleku txapeldun eta Francisco Perez, bigarren. Sari banaketa ekitaldian Andoni Amonarraiz Ongintzako burua eta Joxan Rerondo Alkatea izan ziren. □

Mikel Apeztexea xakeko txapeldun

■ 20 lagunek hartu dute parte ■ Sari banaketa eta Xake partida azkarren txapelketa egingo da igandean.

MIKEL Apeztexeak irabazi du aurtengo Hernaniko Xake Txapelketa. Bigarren Ixidro Esnaola gelditu da, hirugarren Breogan Estevez eta laugarren Josetxo Barandiaran. Laugarren edizioa izan da eta 20 parte hartzaile izan dira.

Sari banaketa igandean egingo da, 17:00etan Goiz Argi tabernan. Ondorenean, Xake partida azkarren txapelketa jokatuko da bertan, nahi duen guztiarentzat. Antolatzaileek xakezale guztiei dei egin die parte hartzera animatzeko. □

Firma bilketa Hernanin, Herrialde pobreentzako justizia eta elkartasuna eskatzeko legearen alde

■ Legegintza Herri ekimenak bultzatutako inizatiba da ■ Bihar 18:00etatik aurrera Plaza Berrin.

LEGEGINTZA Herri ekimenak herrialde pobretuak beren egoeratik ateratzen laguntzeko inizatiba jarri du martxan, EAEn. Helburua da Gasteizko Legebiltzarrean lege bat onartzea herrialde horiekiko justizia eta elkartasuna bultzatuko dituen, proiektu konkretuen bidez. Inizatiba hori Gasteizko legebiltzarrera iristeko ordea, 30.000 herritarren sinadura behar du, eta horretan ari dira orain. Hernanin bihar ariko dira firma biltzen Plaza Berrin, 18:00etatik aurrera.

50 eragileren babes
Legegintza Herri ekimenak 50 gizarte eragileren babes du: Gobernu Kanpoko Erakundeak, sindikatuak, Elizako taldeak eta abar luzea. Proposatzen dute kanpo zorra kentzeko bideak jartzea, merkataritza justua bultzatzea, ekonomia solidarioa eta energia berriztagarriak bultzatzea, nazioarteko erakunde finantzieroak sakon aldatzea eta abar. Eta zentzu horretan konpromiso zehatz batzuk eskatzen dizkiote Jaurkitari. □

ESKOLA KIROLA ASTEBURUKO EMAITZAK



Eskola Kiroleko umeak joan den larunbatean kiroldegian.

Futbola	Taldeak	Emaitza	Saskibaloia	Taldeak	Emaitza
Benjaminak 4	Langile B-Urumea C	7-3	Alebin mutilak	Urumea A-Urumea B	24-44
Benjaminak 4	Elizatxo C-Langile C	5-4	Alebin mutilak	Langile A-Langile B	36-35
Benjaminak 4	Elizatxo A-Urumea D	2-2	Infantil mutilak	Langile-Amara	35-50
Benjaminak 4	Langile A-Elizatxo B	3-2	Infantil neskek	Elizatxo-Amara B	18-61
Infantil neskek	Langile-Txingudi	2-1	Infantil neskek	Langile-Amara A	2-88
Infantil mutilak	Inmaculada-Leizaran	3-5	Alebin neskek	Orixe-Langile	18-18
Infantil mutilak	Urumea-Lasarte	1-3	Boleibola		
Errugbia			Alebin neskek	Urumea-LSB 2	1-2
Benjaminak 3	Langile A-Urumea B	6-7	Alebin neskek	Andoingo-Elizatxo	0-3
Benjaminak 3	Urumea A-Elizatxo B	2-3	Infantil neskek	Santa Teresa-Langile	0-3
Benjaminak 3	Langile B-Langile C	5-11	Esku pilota		
			Alebin mutilak	Langile C-Elizatxo	4-5
			Alebin mutilak	Urumea-Langile A	5-1

† IGNACIO SETIEN AZPEITIA


JAUNA

Herenegun hil zen Hernanin, 71 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta.

-Goian bego-

Emaztea: Milagros Barrenetxea; seme-alabak: Jon, Aitor eta Olga; anai-arrebak: Jose eta Visitación Rodriguez, Mari Carmen Barrenetxea (Antonio Ijurcoren alarguna); ilobak: Maria Esther eta Jesus, Maria Jesus, Mirari eta Benjamin, Arantxa eta Sabin, Amaia eta Juan Carlos; osaba-izebak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela GAUR, OSTEAGUNA, arratsaldeko ZAZPIETAN, JUAN BATAIATZAILEaren parroki elizan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.



Hernanin, 2004ko abenduaren 23an

Helbidea: Kardaberaz 44 - 4.

OHARRA: Gorputza ORBEGOZO EHORKETA TANATORIO berrian (kiroldegian ondoan) egongo da eguerdiko 12:00ak arte.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 006666
- ▶ Jokalari anonimoak: 943 331103
- ▶ Alkoholiko anonimo: 943 331103

✚ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Bilbao-Sagastiberri Urbieta 7 ☎ 943 552941
- ▶ Gaez: Tanco Urnieta. San Juan 36 ☎ 943 550942

IRAGARKI MERKEAK

Inigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, auriculoterapia,.... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42)



Osiñagako Auzo Elkarteak

Eguberri jai zoriontsuak eta urte berri on opa dizkizuegu, auzotar eta hernaniar guztioi!

diseinu grafikoa

serigrafia

andrekale35
kardaberaz, 35. Hernani.
Tel.: 943 33 60 05 - Faxe: 943 33 59 76
andrekale35@euskalnet.net



YONE boutique

Kale Nagusia 63

Aurtengo Gabonetan

PREZIO BEREZIAK
• %20 deskontua